

Hizkuntza eskakizun sistemaren erreforma: Oztopoen orde zubiak

Eusko Jaurlaritza hizkuntza eskaizunen sistemaren erreforma izapidetzen ari da. Erreforma esanguratsua bi arrazoiengatik:

- Gizarte eztabaida bat irekitzen du, baita sindikala eta politikoa.
- Enplegu publiko guztiari eragingo dio baita azpikontratutako milaka enpresa pribatuko lanposturi.

Hizkuntza-eskakizunen sistema laurogeiko hamarkadako itun transbertsaletako bat izan zen (10/1982 Legea, euskararen normalizazioari buruzkoa, eta hizkuntza-eskakizunei buruzko 224/1989 Dekretua). Badira bizikidetzarako gai nagusiak, adostasun anitzak behar dituztenak, baina itun horren garapenean, gehiegitan, ez da errespetatu ez haren espiritua, ez haren letra.

Euskadiko CCOOn, hizkuntza-eskakizunen sistema eta euskararen sustapenari buruz dugun ikuspegi orokorra balio pluralistetan oinarritzen da. Hala jaso genuen gure dokumentuan



- **Klase arrakalarik gabeko herri eleaniztun baten alde. Euskadiko CCOOren proposamenak euskal gizartearen kohesioaren, bizikidetzaren eta euskararen aldeko hizkuntza politika baten alde.**

Aniztasunaren errespetua eta defentsa, hizkuntza eskaizunen sistemaren ideia harekin bat datorrena, “hizkuntza errealitate bakoitzera egokitzeko ahalegina sistemaren giltzarri moduan” kokatzen zuena, garai hartako IVAPEko zuzendaria zen Josu Erkorekak defendatua, eta, “hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta, euskal herri-administrazio bakoitzak zerbitzatu behar duen komunitatearen isla fidela izan beharko lukeela” adierazi zuen gainera.

Txosten honen helburua da euskararen sustapen ereduak eta orain arte mahai gainean jarri diren hizkuntza eskaizunen ereduak alderatzea. Euskadiko CCOOren ereduak, zubi eta erraztasunen bitartez euskararen heda-



pen inklusiboaren alde egiten du eskakizunen erabilera proportzionalarekin hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta aurrez aurre jarri dugu eskakizunak gehiegikeriaz eta justifikatu gabeko lan oztopo moduan erabiltzen dituen eredu baztertzaileren aurrean, ikasketa aukerak ere ukatzen dituenak.



- *EAEko sektore publikoa euskalduntzeko ELA, LAB eta Kontseiluaren proposamen bateratua*
- *Kontseiluaren proposamean hizkuntza-eskakizunen Dekreturako*

	CCOO	ELA/LAB/Kontseilua
HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA HIZKUNTZA BIZIKIDETZA	Herritarren hizkuntza hautaketa Administrazio publiko guztietan bermatu behar den eskubidea da, gehiegikeria eta bazterketarik gabe (baita ere betetzen ez duen Euskadiko Estatuko Administrazio Orokorrean).	- Euskararen sustapena ez dakienaren bazterketarekin nahasten da. - Euskaraz lan egiteko eskubidea zirriborratzen da, euskara ez dakiten lankiderik ez edukitzean bihurtzen dena.
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ESKATzea	Hizkuntza eskakizunen ehunekoa herri bakoitzaren errealitate egokitu behar da, gehiegitan bete ez den eta indarrean dagoen itundutako euskal araudiarekin bat datorrena. EAEko adin nagusien %14k bakarrik dauka 2.HE- B2 edo gehiago (ez da gauza bera Azpeitia edo Gasteiz).	Lanpostu berri guztiek, lan-poltsek eta oposaketek 2.HE-B2 edo gehiago eskatu behar dute.
EGONKORTZE PROZESUAk	Iraupen luzeko bitarteko langile guztien egonkortzea erraztea, baldintza berberetan, euren meritoen arabera, eskakizunak lortzeko kadentzia-aldiak ezarri persona eta lanpostu bakoitzari egokitu.	Egonkortze lanpostu gehienak derrigorrezko hizkuntza eskakizunarekin ateratzea lortu dute: Adibideak: • Udaleko Idazkari- kontu-hartzaileak %94 4.HE-C2. • Eusko Jaurlaritzako TAG %87 3.HE-C1. • EJKo Administralari laguntzaileak %86 2.HE-B2.
EUSKARA IKASTEKO ERRAZTASUNAK	Diru publikoaz finantzaturako liberazioak euskara ikastea errazteko, indibidualki pribatizatu gabe.	Hizkuntza eskakizun gabeko inori enplegu publikora sartzen ez uztea "horien euskalduntzeak gainkostua ekarriko du", eta "denbora eta diru- inbertsio gehigarria dakar" argudiatuta. (sic).
LANGILE FINKO ETA BITARTEKOENTZAKO IKASTAROAk	Langile finkoentzat eta bitarteko langileentzat liberazio berak, 20/2021 Legearen eta 1999/70/EB Zuzentarauaren diskriminaziorik ezaren printzipioarenkin bat etorri.	Liberazio osoak langile finkoentzat eta partzialak bitarteko langileentzat.
HIZKUNTZA ESKAKIZUN MOTAK	Eskakizun asimetriko berriak: ahozko funtzioak dituzten lanpostuak, bereizitako balorazioa, ulermenarena eta A1/A2 mailena.	Lanpostu guztietan eska daitekeen gutxieneko maila 2.HE-B2, 1.HEB1 HE kenduta (gaur egun lanpostu askotan dagoena garbiketa, sukaldean, atezaintzan, mantentze-lanetan...).
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK GOGORTZEA HEZKUNTZAN ETA OSAKIDETZAN	Irakasleentzat C1+ eskakizun berria (nazioartean existitzen ez den maila) eta erizain zein medikuentzat 3.HE-C1 ezartzeko proiektuen aurrean, gaur dauden mailak mantentzearen eta etengabeko prestakuntza lehenestearen aldeko apostua egiten dugu. Hau da, erraztasunak exijentzia berrien aurrean.	Isiltasun konplizea lan estaldura arazoak dituzten sektore-etako kolektiboetan exijentzia berrien aurrean, estrategikoak direnak herritarren ongizatean.
4-C2 HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	Hizkuntza-profesionalen lanpostuetara mugatu (itzultzaileak, normalizazio-teknikariak).	"Goi mailako hizkuntza-gaitasuna behar duten" lanpostu kualifikatu guztietarako proposatzen dute, zer den eta zein lanposturi eragiten dion zehaztu gabe, gaur egun dagoeneko hainbat lanbidetako teknikarien lanpostu askotan eskatzen da.
AZTERKETAK ETA HIZKUNTZA AUKERATZEA	Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeatik salbuestea oposizioa euskaraz borondatez egiten bada.	Oposizio guztietan azterketaren bat euskaraz egitea derrigorrezkoa izatea.
LANEKO ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO HIZKUNTZA	Zerbitzuaren beharren eta egoera soziolinguistikoen arabera.	- Derrigorrezko erabilera lanean. - Eusko Jaurlaritzaren dekretu-proiektuak planteatzen du etengabeko prestakuntza nahitaez euskaraz izatea, hautatzeko aukerarik gabe.
SALBUESPENA GEHIENGOA EUSKARAZ IKASTEAGATIK (47/2012 DEKRETUA) ETA EUSKARAZ LAN EGITEAGATIK	Euskaltegi-tako etengabeko ebaluazioa eta ikasketak gehienbat euskaraz egin izanaren salbuespenez gain, salbuespena kasu hauetan ere aplikatzea proposatzen dugu: • Oposaketa euskaraz egitea • Euskaraz lan egin izana (EEIren profesionaltasun-zurtagiritan bezala).	- Gehiengo euskaraz ikasi izanagatik hizkuntza eskakizunetik salbuestsita oposizio-etako azterketa guztiak euskaraz egin eta gainditu izanaraen baldintzapean. - Kontseiluak bere dokumentu ofiziale-tako batean eskatu du 47/2012 Dekretua indargabetzea eta profilak 10 urtera iraungi ahal izatea
AZPIKONTRATA PUBLIKOETAKO LANGILEAK	Arreta elebidunerako enpresa-planak, eskakizun proportzionatuekin, eta ikaskuntzarako laguntzak (euskaltegien doakotasuna eta lan ordutegi barruko liberazioak).	Administrazioan dauden eskakizun berberak (lanpostu guztiak), ikasteko eskubiderik eta laguntzarik bermatu gabe.